

TXIKIZKAKO MERKATARITZA INDIZEA

Metodologiaren inguruko oharra

2019ko martxoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Txikizkako Merkataritza Indizea (TMI) hiru hilean behin neurtzen den koiunturako adierazlea da, eta EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko salmenten eta enplegatu-kopuruaren bilakaera neurtzea du helburu; baita horren azpisektoreenak ere.

Aztergai den populazioa (jarduera nagusia NACE Rev. 2 sailkapenaren 47. dibisioan edota JESN 2009 sailkapenean jasota dituzten saltokiak, alegia) zerbitzuen sektorekoa denez, TMI Zerbitzuen Koiuntura Indizearen (ZKI) barruan sartzen da. Dena den, batez ere txikizkako merkataritzaren azpisektoreak zuzenean eta zeharka duen garrantzia dela-eta, TMI bereizita hedatzen da, ZKIn sartutako gainerako zerbitzuak baino bereziago, kontsumo pribatuaren eta ekonomia osoaren etorkizunaren adierazlea baita. Izan ere, 47. dibisioan zerbitzuen sektoreko gainerako dibisioetako populazioetan baino laginketa sakonagoa egiten da.

TMIren oinarri-urtea 2015 da; lehen indizeak 2010. urteko lehen hiruhilekoak dira, eta ZKIren sektore-bereizketa erabiliz lortu dira.

1. Txikizkako Merkataritza Indizearen eremua

1.1 Populazioaren eremua

Txikizkako Merkataritza Indizearen populazioa NACE Rev. 2 sailkapenaren 47. dibisioak osatzen du (aurrerantzean JESN 2009).

JESN 2009ren sektore-bereizketan oinarrituta, zerbitzuen sektore osorako [sektorekako bereizketa](#) sortu da, Europan konparagarriak izan daitezkeen datuak lortze aldera, baina Euskal Autonomia Erkidegoko berezitasunak onartuz.

1.2. Eremu geografikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko eta bertako lurralde historikoetako unitate estatistikoak, nahiz eta enpresaren egoitza edo zuzendaritza hortik kanpo egon.

1.3. Denbora eremua

Erreferentzia-epa hiru hileko naturala da.

3. Unitate estatistikoa

Unitate estatistiko moduan, erreferentziako epean eta dagokion eremu geografikoan, populazio-eremuko (47. dibisioa) jarduera ekonomikoren bat gauzatzen duten merkataritza-enpresak erabiliko dira.

4. Aztertze aldagaiak

Txikizkako Merkataritza Indizean honako aldagai hauek aztertzen dira:

a. Salmenten diru-sarrerak

«Salmenten diru-sarrerak» enpresek Euskal Autonomia Erkidegoan eta bertako lurralde historikoetan fakturatzen duten zenbatekoa dira. Enpresak erosi zituen ondasunak baldintza berberetan berriz saltzearen ondorioz fakturatzen dituen zenbatekoak hartzen ditu barne.

Azpiproduktuen bilgarri, garraio eta salmentengatik fakturatutako gastuak ere sartzen dira.

Ondasunei eta zerbitzuei aplikatzen zaizkien zergekin kontabilizatzen dira, BEZa izan ezik, bezeroari aplikatzen baitaio.

Ez ditu barne hartzen erakunde publikoetatik edo Europar Batasunetik jasotako diru-laguntzak eta errenta finantzarioak, ezta bestelako jarduerako errenta batzuk ere, esaterako: subsidioak, akzioen eta aktibo finkoen salmentak, interesen, dibidenduen eta patenteen diru-sarrerak, enpresaren jabetzen, produkzio-unitateen eta makinaren alokairuak. Langileei laguntzak (jangela, etab.) ematearen eta unitatearen ondasunak eta zerbitzuak ematearen diru-sarrerak ere ez ditu barne hartzen.

b. Enplegatu-kopurua

Erreferentziazko hiruhilekoan, dagokion eremu geografikoan, enpresari zerbitzuak ematen dizkieten pertsonen batezbestekoa izango da «enplegatu-kopurua». Bere lanagatik diru-sari bat jasotzen dutenak izango dira «enplegatuak», enpresarekin duten kontratu bidezko harremana edozer dela (langile finkoa, aldi baterakoa, lanaldi osoan edo lanaldi erdian). Halaber, gutxienez lanaldiaren heren batez lan egiten duten jabeak eta familiako laguntzaileak ere «enplegatu» kontsideratuko dira. Nolanahi ere, komisioren truke lan egiten dutenak baztertu egingo dira.

5. Laginketa-plana eta laginen diseinua

5.1 Inkestaren markoa

Inkestaren marko moduan, Eustat-en Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) erabili da, enpresen eta horien saltokien jarduera nagusiari eta enplegatu-kopuruari buruzko informazio osoa jasotzen baitu.

5.2 Laginen diseinua

EAEn 50 enplegatu edo gehiago dituzten enpresa guztien eta hiru lurralde historikoetan saltokiak dituzten 10 eta 50 enplegatu arteko enpresen laginketa zorrotza egingo da.

Laginketa gutxi gorabehera 300 enpresatan (saltoki guztien jarduera EAEn gauzatzen dutenak) egingo da, hiru geruzatan banatutako ausazko laginketa bidez. Geruzen aldagai bezala, lurralde historikoa, enplegua eta jarduera ekonomikoa erabiliko dira:

- Lurralde historiko bakoitzeko saltoki-kopuruaren erro karratuarekiko proportzionala den esleipena.
- Enplegu-geruza bakoitzeko saltoki-kopuruaren erro kubikoarekiko proportzionala den esleipena.
- Jarduera ekonomikoagatiko Neyman-en esleipen onena.

Laginen neurriari esker, zerbitzuen [sektore-bereizketaren](#) L sektore-bereizketako indize adierazgarriak lortu ahalko dira EAerako, eta C sektore-bereizketakoak lurralde historikoetarako.

6. Oinarri-urtea

Txikizkako Merkataritza Indizearen oinarri-urtea 2015 da. Horrenbestez, indizeak gehitzeko erabilitako haztaperak 2015. urteari dagokion egiturazko informazioaren bidez lortu dira.

TMIIn sartutako indize guztien erreferentzia urteztat ere 2015 aukeratu da.

7. Indizeak kalkulatzeko

7.1 Indize sinpleak lurralde historikoaren arabera

Lurralde historiko bakoitzeko JESN 2009 motako indize sinpleak «salmenten diru-sarrerak» aldagairako (prezio korrontetan eta konstantetan¹) eta «enplegatu-kopurua» aldagairako (aurrerantzean «X» izendatuko dira, generikoki), honela lortzen dira:

1. 2015. urtean:

$$ISX_t = \frac{\sum X_t}{\bar{X}_{2015}} 100$$

non \bar{X}_{2015} 2015. oinarri-urtearen X-en batezbestekoa den.

2. 2016. urtetik aurrera:

$$ISX_t = ISX_{t-1} \frac{\sum X_t}{\sum X_{t-1}},$$

non X_t eta X_{t-1} ohiko enpresetan neurtzen diren t-en eta t-1-en (jarduera lurralde historiko jakinean bai t-en bai t-1-en).

7.2 Indize sinpleak Euskal Autonomia Erkidegorako

EAE osorako indize sinple guztiak lurralde historikoetako indize sinpleen konbinazio lineala eginez lortzen dira, 2015. oinarri-urteari dagozkion egiturazko haztaperak erabiliz.

7.3 Indize konposatuak lurralde historikoaren arabera

L eta C sektore-bereizketako indize konposatuak eta Txikizkako Merkataritza Indizea lortzeko, hori baino justu txikiagoa den sektore-bereizketako (bereizketa handiagoa)

¹ «Salmenten diru-sarrerak» prezio konstanteetan lortzeko, enpresak ematen dituzten prezio korronteen «salmenten diru-sarerei» hiruhileko prezioen indizeak aplikatu behar zaizkie.

indizeen konbinazio lineala egin behar da, kasu bakoitzean 2015. oinarri-urteari dagozkion egiturazko haztapenak erabiliz.

7.4 Indize konposatuak Euskal Autonomia Erkidegorako

EAEko L eta C sektore-bereizketarako indize konposatuak eta Txikizkako Merkataritza Indizea lortzeko, lurralde historikoetako indizeei dagokien sektore-bereizketaren konbinazio lineala egin behar da, 2015. oinarri-urtearen egiturazko haztapenak erabiliz.

8. Indizeak zuzentzea eta desestazionalizatzea

Indize guztietan egutegiaren eraginak zuzendu eta desestazionalizatu egiten dira, konparatu ahal izateko. Egutegiaren eraginak zuzenduta dauzkaten indizeak homogeneoak dira urtetik urtera, eta desestazionalizatutako indizeak, berriz, hiruhilekotik hiruhilekora eta urtetik urtera dira homogeneoak.

Egutegi-eraginetako serie doituak eta urtaroen eraginetako serie doituak 2015. oinarri-urtetik JDemetra+ 2.2.1 softwarearen bidez lortzen dira, Eurostaten gomendioei kasu eginez urtaroen doikuntzak eta egutegikoak egiteko Europar Batasuneko estatistika ofizialetan.